

PLE 04-JUN-26 (3/CP) KREDITU-SORRERA IRUÑEKO UDALAREN 2026KO AURREKONTUAN, NAFARROAKO GOBERNUKO DIRULAGUNTZEN BIDEZ FINANTZATUA.

.

PLE 04-JUN-26 (3/CP)

«IKUSIRIK Iruñeko Udalaren 2026ko aurrekontuaren –Osoko Bilkuraren erabaki bidez onetsia 2025eko azaroaren 27an (3/CP)– aldaketari buruzko espedientean jasota dauden agiriak, ezen beharrezkoa baita hasiera batean aurrekontuan jaso gabe gelditu diren Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzen bidez finantzatutako ikastetxeetako obrak egiteko gastuetarako, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren arloan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuak ezarritakoarekin bat, eta indarreko aurrekontua betetzeko oinarriekin bat, ERABAKITZEN DA:

1.- Kreditu-sorrera onestea Iruñeko Udalaren 2026ko aurrekontuan, 102.926,62 euroko zenbatekoarekin, dirulaguntzen bidez finantzatua, xehetasun hauekin bat:

Gastuak		Finantzaketa (diru-sarrera)	
Partida	Zenbateko a	Partida	Zenbateko a
85/32320/632040 Ikastetxe Publikoak. Eraikinak konp. inb.	102.926,62	20/75080 Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza	102.926,62

Aurrekontu-aldaketa horiek betearaztekoak izanen dira onespén-erabakia hartzen denetik aitzina.

2.- Aldaketa hauei aplikatzen ahalko zaie aurrekontua betetzeko indarreko 10. oinarriko 8. apartatua, aurrekontu-aplikazio berriak sortuz gero gastua behin betiko egoztean.»



BC7FEE4B766061B4312F111CB2C886CCHC